

BALEIKE

174. ZENBAKIA. EURO BAT
2009ko OTSAILA

www.baleike.com



HEMEN DA KRISIA

Ayra Durexek enpleguaren erregulazio
dosierra aurkeztu du



OIKIAKO HERRI ESKOLA

2 urtetatik 12 urterera
herrian ikasteko aukera



- Talde txikiak (banakako heziketa)
- Ingelera 4 urtetik aurrera
- Bertsolaritza Proiektua
- Teknologia berriak:
Bloga: <http://laukostaldekotxikiak.blogspot.com>
Pelutxe Proiektua (Haur Herkuntza)
- Psikomotrizitate gela
- Ingelera, Heziketa Fisikoa, Musika eta Heziketa Bereziko irakaslego espezializatua
- Jangela zerbitzua

AURREMATRIKULA EPEA:
otsailaren 2tik 13ra

Tel-faxa: 943 862 046

E-mail: 012299aa@hezkuntza.net

Etorkizunerako aukera

Izen emateko epea
otsailaren 2tik 13ra



Zatoz gurekin!

0 urtekoen gela berria

0 Urteik 16 urtetara

kalitatezko irakaskuntza
euskalduna D eredu,
zentru bakar batean.



BALEIKE 174

AZALA g. zabaleta



HERRI ALDIZKARIA
Juan Belmonte, 29 behea
tel.: 943 86 15 45
e-maila: aldizkaria@baleike.com

Argitaratzailea
Baleike Kultur Elkarte
e-maila: elkarte@baleike.com

Administrazio batzordea: Xabier Azkue, Gurenda Serrano

Erredakzio taldea: Xabier Aizpurua, Imanol Azkue, Abelin Linazisoro, Ainara Lozano Lasa, Aitor Manterola, Juan Luis Romatet, Miriam Romatet, Peio Romatet, Arnaitz Rubio eta Gorka Zabaleta

Diseinua eta maketazioa: Roberto Gutierrez

Hizkuntz zuzenketa: Imanol Azkue

Publizitatea
tel. 943 86 15 45
gurenda@baleike.com

Inprimategia
Antza Inprimategia
(Lasarte-Oria)
Tirada
1.000 ale
Lege gordailua: SS-405/94
ISSN: 1136-8594

Baleikek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

4

baleike+

Motorra gelditzeko zorian

10
iritzia
UDAL AURREKONTUAK

15
erretratu
JON URBIETA

19
argazkitan
DENBORALEAK UTZI-
TAKO IRUDIAK

23
erreportajea
GERONTOLOGIKOA

30
zumaiegi
ITZURUN ETA PIKOTE

33
gure zumai zarra
ALBERTO URANGA
LINAZISORO

Argitalpen honen edizioko laguntzaile:



Zumaiko Udala

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

MOTORRA GELDITZEKO ZORIAN

Irailaren 30era arte hilean bi astez lanik ez egitea onartu dute Ayra Durexko 299 langileek. Lana erdira jaitsita, ez zaie beste irtenbiderik gelditu. Krisialdi honetan Zumaiako enpresa batek onartu duen lehen erregulazioa da. Enpresako Zuzendaritzarekin eta sindikatuetakoa ordezkariekin hitz egin dugu.

TESTUA eta ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Okerrena etortzeko omen dago. 2008ko uda ondorena txarra izan zen, baina 2009a are beltzagoa dator. Tunelean ez da irteerarik ikusten. Makroekonomia –zenbaki handiak– maldan behera eta balaztarik gabe; mikroekonomia –gurea– inoizko malda gora gogorrenaren aurrean. Gaitza gorputz osora zabaldu omen da. Adituen orain arteko errezetak ez omen dira eraginkorrak. Zerbait berria behar dela. Baina zer? Horixe omen da mundua zeharo larrituta daukan krisi ekonomikoa.

Juanjo Alvarezek esan zigun aurreko hileko elkarrizketan krisialdi honekin ohartu garena mundu globalizatua dela gurea. Tximeleta efektuaren aroan sartu gara, atzera egiteko aukerarik gabe. AEBetako finantza krisiak sortutako lurrikarak kolokan jarri ditu ustez sendoak ziren gure ekonomiaren oinarriak. Ekaitzari aurre egiteko inguruko herrialdeak baino hobeto prestatuta gaudela esan digute agintariek behin eta berriro; sinetsi egin nahi izan diegu, bestaldera begiratu dugu. Urليا langabezia gelditu dela, sandia etxea saldu ezinik dabilela edota berendiak denda itxi behar izan duela entzun, entzun ditugu; gorrarena egin dugu, ordea.

Ekaitza zikloi bihurtu, etxeko atea lehertu, eta sukalderraino sartu zaigun arte. Hemen da, hezur-haragizko egin da, agerikoa: langile gehien dituen herriko enpresak enpleguaren erregulazio dosierra aurkeztu du, egoera eutsiezina egin zaiolako. Ayra Durexko 299 langileek hilean bi astez ez dute lanik egingo irailaren 30era arte. Lanik gabeko bi aste horiek langabeziatik kobratuko dituzte, eta enpresak berez bakoitzari bi aste horientatik legokiokeen soldataren % 80 arteko dirua jarriko du. Sindikatuak ados

AEBetako finantza krisiak sortutako lurrikarak kolokan jarri ditu ustez sendoak ziren gure ekonomiaren oinarriak

gileak kaleratu beharko dituztela eta, ondorioz, langabezia tasa gutxienez lau puntutan igoko dela. Datuak sektoreka aztertzen badira aldeak egon daitezke, baina Zumaiako ekonomia testuinguru horretan kokatu behar dugu, ezinbestean. Zorionez, herriko zenbait enpresa oraingoz krisiari aurre egiteko moduan dira, baina beste hainbatentzat etorkizuna zalantzas beterik ageri da. Batzuk ixteko zorian dira. Orain artean, behin-behineko kontratua zutenak izan dira lanpostua galdu dutenak, lantoki handientzat lan egiten zuten tailer txikiak... Baina Ayra Durexko kasuak errealitate gordinenarekin parez pare jarri gaitu: hemen da krisia.

daude, “helburua lanpostuei eustea delako”, baina jakin badakite egoerak okerrera egin dezakeela.

Joan den asteko egunkarietan irakur daitezke 2009rako hainbat erakundek Gipuzkoako ekonomiarako egindako iragarpenak. Ezkorrrak dira denak, ñabardurak ñabardura. Adeggi Gipuzkoako Enpresarien Elkarteak egindakoa da gogorrena. Datuetan gehiegi sartu gabe –hemerotekan kontsulta daitezke–, Gipuzkoako ekonomiak atzera egingo duela dio, hau da, hazkunde negatiboa izango duela; enpresen erdiak lan-



“Auto berri bat erostekotan den norbait ezagutzen al duzu?”

Hamabi urte daramatza Ayra Durexen lanean. Sekula ez omen du hain egoera larririk ezagutu. Mezu bat azpimarratu nahi izan dio kazetariari: sindikatuek eta Zuzendaritzak helburu berbera dutela: “lanpostuei eustea”.



Noiz ohartu zineten lana jaisten ari zela?

Joan den urteko ekainean ohartu ginen lana nabarmen jaisten hasi zela. Abuztuko ohiko oporraldiari beste bi aste erantsi genizkion, jendeak libratzeko zituen orduak erabilia.

Irailean bueltatu ginenean, egoera askoz kezagarriagoa zen: ohartu ginen ez genuela lanik langile guztientzat, eta, gainera, taldeko beste lantokiek ere arazo berbera zutela. Lan bolumena oso azkar jaitsi zen, gainera. Gaur egun, 2007an genuen lan bolumenaren erdian gaude. Horren aurrean, zenbait neurri hartu behar izan genituen: asteburutako lanaldiak kendu genituen, behin-behineko kontratua zuten 23 langilek alde egin behar izan zuten urrian, eta pilotuta genituen orduak erabiliz lantokia 12-14 egunez itxi genuen urteko azken hiruhilekoan.

2009an gauzak ez dira hobeto hasi...

Ordutik, egunetik egunera, astetik astetira, egoera okertzen joan da, krisia sakondu egin da. Eta albisteak ez dira batere baikorrak: Bartzelonako Nissanek 1.700 langileren kontratu etetea aurkeztu du: gure bezeroa da; Gasteizko Mercedesek abenduaren 12an itxi zuen lantokia eta urtarrilaren 19an zabaldu: gure bezeroa da. Ingalaterrako Nissanek 1.200 langile kaleratu ditu Sutherlandeko lantokian: gure bezeroa da... Eta horri gaineratu behar zaio krisi hau ez dela soilik European gertatzen ari, AEBetan eta Asian ere bai. Guk produzitzen dugunaren % 85 esportatu

egiten dela kontuan hartuta, eta merkatuak nola dauden ikusita, lan karga izugarri jaitsi da. Gutxi gorabehera 80 bat lagun daude sobran egunero-egunero irailetik; sobran diodanean esan nahi dut 80 lagunentzat ez dugula lanik. Orduan, adostu genuen 2009ko egutegia moldatzea eta jaiegunak urtarrilean pilotatzea, lan egun gutxiago egon zitezen. Enplegua erregulatzeko dosierra saihestu nahi genuen, baina ezinezkoa izan da. Azkenean ez zaigu beste aukerarik gelditu. Urtarrilean 12 lanegun izan ditugu, eta, hala ere, ez dago lanik guztiontzat...

“Egoerak okerrera egiten badu, beste neurri batzuk hartu beharko dira”

Enplegua erregulatzeko dosierra adostu duzue langileekin, irailaren 30era arte. Baina hurrengo hilabeteotan egoerak okerrera egingo balu, iraila iritsi baino lehen dosierra aztertu eta beste neurri batzuk hartuko al lituzke Zuzendaritzak?

Noski. Beste neurri batzuk hartu beharko lirake. Baina bai Zuzendaritza, bai sindikatuek, ados gaude, egoera oso larria izanda ere, lanpostuei eustea dela helburua, eta neurri guztiak norabide horretan hartu dira. Nahiago dugu gutxiago irabazi lanpostu guztiei eutsi ahal izateko.

Multinazional baten barruan, lantoki bakoitzeko zuzendaritzak zenbaterainoko autonomia izan dezake neurri bat edo beste hartzeko?

Batere ez. Goitik esan zaigu produkzioa erdira jaitsi bada jendea ere neurri berean dugula sobran. Bi aukera dituzu:



299 langilek egiten dute lan gaur egun Ayra Durexen.

erregulazioa edo kaleratzea. Bigarren aukerak arrisku handiak ditu eta dramatikoagoa da. Horregatik saiatzten ari gara, ahal dugun neurrian, inor ez kaleratzen. Baina ulertu behar dugu ezin dugula egoera honetan luzaro jarraitu.

Zenbat denboraz eutsi ahal zaio egoera honi?

Oraingoz, iraila arte. Betiere, aurreikusi ditugun parameetroak mantentzen badira. Egoerak okerrera egiten badu, beste neurri batzuk hartu beharko dira.

Kaleratzeak ere bai?

Jendeak ulertu behar du horrelako lantoki bat ez dela bidegarria hilean bi astez bakarrik lan eginda.

Beraz, lantokia ixteko arriskua hor dago.

Ez dizut hori aipatu, bestela gero mehatxutzat hartzen delako. Baina jar gaitetzen Ingalaterratik erabakiak hartzen dituen pertsonaren larruan, eta pentsa dezagun hainbat lantoki ditugula munduko 35 herrialdetan, eta denetan lana erdira jaitsita dagoela. Erabakia, zenbait kasutan, erraza izan daiteke. Egoera noiz aldatuko zain gaude, baina une hori noiz iritsiko den ez da oraindik aurreikusten. Ezagutzen al duzu auto berri bat erostekotan den norbait? Bada, guk autoetarako transmisioak egiten ditugu. Autorik ez bada saltzen, transmisiorik ere ez...

GKN: ia 40.000 langile

Sortu: Ayra Durex enpresa Eibarren sortu zuten 1940an; Zumaiako lantokia 1974an eraiki zuten. GKN multinazionalak enpresaren % 34 erosi zuen 1978an, eta 1986tik jabe nagusia da, akzioen % 66rekin.

Langileak: Zumaiako lantokian gaur egun 299 langilek egiten dute lan, denak kontratu mugagabearekin. 70eko hamarkadaren erdialdean 560 langile inguru izan zituen. Garai hartan enpresa bitan zatitu eta Ayra Cardam sortu zen, ibilgailu handientzat. Horrela, Ayra Durexen 390 langile gelditu ziren. 1996an 490 langile izatera iritsi ziren, asko behin-behineko kontratuarekin. Orduetik langile kopurua pixkanaka jaitsi egin da urtetik urtera.

Produktzioa: autoetarako transmisioak egiten dituzte. Toyota, General Motors, Nissan eta Mercedesentzat egiten dute lan gaur egun.

GKN: multinazional erraldoia da, mundu osoan zehar ditu lantokiak. Europen 21 enpresa ditu (Frantzia, Italia, Alemanian, Ingalaterran, Eslovenian, Euskal Herrian, Galizian...). Hiru dibisiotan dago antolatuta, horietako bat autogintzarena: driveline izenekoa. Aeronautika eta zerbitzuak dira beste bi dibisioak. Autogintzan, hain zuzen ere, 8.887 langile ditu mundu osoan; denera, hiru dibisioak kontuan hartuta, 39.000 langile ditu. Autoen transmisioen merkatuaren ia % 45 berea da.

Ayra Durexko langileen komitea

“Garbi daukagu GKNren erabakien menpe gaudela inoiz baino gehiago”

Enpresan ordezkaritza duten lau sindikatu-
etako kide banarekin bildu gara mahai baten
bueltan: UGTko Marcelo Cortes, ESK-ko Igor
Arana, ELAko Jose Luis Telleria eta LABeko
Asier Arakistainekin.



Asier Arakistain, Jose Luis Telleria, Marcelo Cortes eta Igor Arana.

Lana jaisten ari zela eta, Zuzendaritza irailean hasi zen hainbat neurri hartzen.

Telleria: Bai, aurrena langileak murriztu, behin-behineko kontratua zutenak kaleratuz. **Arana:** Gero ohartu ginen horietako batzuei kontratu mugagabea zegokiela, bi urte baino gehiago egin zutelako... 23 langile joan ziren kalera. **Telleria:** Gero, kanpora azpikontrataturako hainbat lan berreskuratu dira. Eta horrekin batera, pilatuta genituen lanorduak kentzen joan gara. **Arakistain:** Azken urteotan orduak pilatzen joan gara, urtetik urtera. Azkenean, 39.000 lan ordu zeuden pilatuta. Zuzendaritzak irailaren 9an aurkeztu zuen lehen aldiz enplegua erregulatzeko dosierra. Ikusita hainbeste ordu zeudela pilatuta, guk ez genuen halakorik onartu eta beste neurri batzuk proposatu genituen. Adostasun batera iritsi ginen ordu horiekin zenbait egunez lantokia ixteko. Enplegu erregulazioa baztertu egin zen orduan.

Gabonen bueltan, urte berriarekin batera, enplegu erregulazioarekin aurkitu zarete, ordea. Zuzendaritzak ez al dizue kaleratzeen aukera aipatu?

Arakistain: Dosierra negoziatzen has-
teko jarri genuen lehenengo baldintzetako
hori izan zen, hain zuen ere, helburua zein zen jakin nahi ge-
nuela. Planteatu izan baligute produkzioa erdira jaitsi delako
langileen erdia kaleratzeko asmoa zutela galera ekonomikoei
buelta emateko, hori ez genukeen sekula negoziatuko. Hasie-
ratik oso garbi gelditu zen bai Zuzendaritzaren aldetik, bai sin-

dikatuen aldetik, dosierraren helburua kaleratzeak saihestea
zela. Behin hori garbi utzita, negoziatzen hasi ginen. **Cortes:**
Denok ikusten dugu garai txarrak ditugula aurrean eta denbo-
ra irabazi behar dugula nola edo hala. **Telleria:** Egia da, hala
ere, 22 langilerentzat aurre-erretiroak onartu direla.

Adin jakin batekoak?

Telleria: Bai, 58 urtekoak.

“Azken urteot-
tan lortu diren
produkzio
mailetara
iristea ez da
batere erraza
izango”

**Multinazional baten parte zarete. Langi-
leak bat eginik zaudete, edo lantoki bakoit-
zak bere kabuz funtzionatzen du? Enpre-
sak neurri berberak hartzen al ditu lantoki
guztietan? Besteen berri ba al duzue?**

Cortes: Europako Batasunean badago
arteztarau bat Europa mailako komiteentzat,
baina ez da batere eraginkorra. Urteko txos-
tena osatzen da eta informazio hori eskura
daiteke, baina ez du lan egiteko aukera han-
dirik ematen. Hori aldatzeko eskaera egin da
behin eta berriro, multinazionala langi-
leei bete-betean eragiten dielako. **Telleria:**
Baina egia da krisi hau orokorra dela GKN
multinazionala lantoki guztietan, eta neu-
rriak ere denetan ari direla planteatzen. **Cor-
tes:** Are gehiago, talde barruko Europako

lantoki guztiek dute enplegu erregulazioa martxan, Alema-
niako bat izan ezik.

**Oraingoz iraila amaiera arteko akordioa lortu duzue do-
sier honekin, baina Zuzendaritzak beste neurri gogorrago-**



Autoetarako transmisioak egiten dituzte Toyota, General Motors, Nissan eta Mercedes bezalako etxeentzat.

rik aurreratu al dizue egoerak okerrera egiten badu?

Cortes: Produkzioa bateratzeko aukera aztertu beharko luketela.

Horrek zer esan nahi du, lantoki batzuk ixtea?

Cortes: Bai, ez dizute hain garbi adierazten, baina bai. Egoera ez bada errekeratzen urte amaierarako edo, beranduenez jota, 2010eko lehen hiruhilekorako, arrisku hori dugu.

Eta, multinazional bat izanda, zenbaterainoko autonomia du lantoki bakoitzeko Zuzendaritzak neurri bat edo beste hartzeko, sindikatuekin adostasun batera iristeko?

Arakistain: Guk uste dugu nahikoa autonomia maila badutela zenbait gauza negoziatzeko, muga batzuen barruan. Baina beraiei ondo datorkie hori ukatzea, egoera kritiko batean "goikoen" aginduak bete behar dituztela eta eskuak lotuta ditzutela esatea. **Cortes:** Esate baterako, hemen jende asko 60 urterekin jubilatuta ahal izan da oso baldintza onekin, eta beste lantoki batzuetan ezin izan dute halakorik egin.

Antzeko krisi egoerarik ezagutu al duzue?

Cortes: Ez, horrelakorik ez. Enpresa honetan bi egoera larri ezagutu ditugu. Bata Eibarren izan zen, Renault bezero modura galdu zenean, baina nahikoa laburra izan zen. Bestea, berriz, 1992an; hori orokorragoa izan zen; gogoan daukat orduan ere enplegua erregulatzeko dossier asko onartu zirela; guk bizpahiru hilabetez sufritu genuen; nahi zuenari etxera joateko aukera eman zitzaion, soldata erdiarekin; batzuek onartu zuten, gazteek, batik bat; baina hilabeteko kontua izan zen. Baina horrelakorik ez. Hau ez zuen inork espero.

Nola ikusten duzue etorkizuna?

Arakistain: Guztiok bezala, ziurgabetasun handiarekin. Inork ez daki neurri honekin makalaldia gaitutiko ote dugun, edo hiltoria luzatu baino ez ote dugun egingo. **Arana:** Egia esan, zuzendaritzak edozein unetan bertan behera utz dezake adostutako dosierra eta kaleratzeak jasotzen dituen beste bat aurkeztu. Egoerak okerrera egiten badu... **Cortes:** Adituek diotenez, 2010eko erdialdera arte autogintza ez da burua altxatzen hasiko. Baina gauza bat garbi dago: azken urteotan lortu diren produkzio mailetara iristea ez da batere erraza izango, inoiz iristen bagara. Krisi hau gaitututa ere, lanpostu asko ez dira berreskuratuko. Horrez gain, krisi hau gehiegi luzatzen bada, autogintzaren industria galtzeko arrisku handia dago, enpresa askok itxi egin beharko dutelako. Gerta daiteke autoen salmentak errekeratzen hastea, ekoizleak auto gehiago egin nahi izatea, baina autoak erdizka gelditzea pieza batzuk egiten dituzten lantokiak galdu egin direlako.

Telleria: Hemengo Zuzendaritzarekin adostasun batera iritsi garen arren, garbi daukagu GKNren erabakien menpe gaudela inoiz baino gehiago. Gauza bat da unean uneko neurriak hartzea arazoei aurre egiteko, eta beste bat multinazionalak bere interesak defenditzeko har ditzakeen neurriak. Multinazional batean sartzen zaren unetik badakizu oso urrunkoa zaizun norbaiten menpe zaudela; bada, egoera honetan, are gehiago.

Ayra Durex ixteko arriskua ikusten al duzue?

Arana: Bai, noski. Lantoki guztiak aztertzen ari dira, eta emaitza horien arabera hartuko dituzte erabakiak. **Cortes:** Krisia luzatzen bada, mehatxu hori hor dugu.

2009ko udal aurrekontuen harira eztabaida izan dute EAJ-PNVk eta Ezker Abertzaleak www.baleike.com-en. Hemen dituzue lehenengo bi iritzi artikulua.



Zumaiako Udaleko 2009ko aurrekontuei EAJ-PNVko Udal Taldeak aurkeztutako osoko emendakina

ZUMAIAKO EAJ-PNV

2009rako Zumaiako Udaleko EA-ANVko udal gobernuak aurkeztutako aurrekontuak aztertu ondoren EAJ-PNVren udal ordezkariok aurrekontu hauei osotasuneko zuzenketa bat aurkezten diogu.

Diru publikoa ahalik eta zorroztasun handienarekin kudeatu behar dela beti ulertu izan dugu, baina gainera gaur egunean bizi dugun krisiaren aurrean, ezinbestekoa dugu lehenetsunak ezarri eta erakunde desberdinek (EUDEL, Foru Aldundia, Eusko Jaurlaritzza, Espainiar Gobernua, Nazioarteko Erakundeek) gomendatzen dizkiguten neurriei jaramon egitea egoera latz honi aurre egiteko.

Aurkeztu zaizkigun aurrekontu hauetan gomendio hauek ez dira aintzakotzat hartzen (gastu arruntaren murrizketa, inbertsioeraz hazkundea ...) eta erakunde publiko gehienagoak egoera honetan hartu dituzten neurrien aurkakoa egitea erabaki dute Zumaiako.

Kontu hauek ezartzen duten joera jarraitzen badugu, Zumaiako Udala porrot tekniko egoera batera iritsi daiteke epe labur batean eta EAJ-PNVko udal taldeak ezin du hondamen-erabakiak garrantzizko konturik babestu.

Pertsonal gastuak

2007. urtetik pertsonal gastuak neurrigabe hazten ari dira, beraz Udaleko langile kopuruaren eta ezartzen zaizkien soldaten igoerari zor zaio. 2008. urtean kapitulu hau %23,13an igo zen eta orain 2009. ekitaldirako %22,71eko beste igoera bat proposatu zaigu.

Pertsonalaren igoera honek herriko zerbitzuen hobekuntzan

eraginik izan ez duela iruditzen zaigu eta azpikontratutako zerbitzuen prezioa murriztu ordez pertsonal propioa hazi da, baina Udaletik azpikontratutako zerbitzuengatik ordaintzen den prezioa aldi berean igo egin da, eta asko gainera.

Langileen soldata %5,2 hazi da, EAEan 2008. urtean KPI-a %1,9 igo denean, eta datu hau da aplikatzen dena hitzarmen kolektiboetan eta baita ere Udalhitzen.

Liberatutako politikoen soldatari dagokionez %9ko igoera proposatzen da, baina beste behin ere, EUDEL-en gomendioei jaramonik ez eginez, zeren erakunde honek kargu publikoen soldata igozteko gomendatzen du 2009. urterako eta neurri honen politikarien gehiengo zabal baten babesa izan du.

Gastu arrunta

Legealdi honetan salatzen dugun beste gaitako bat gastu arruntaren hazkundea da.

2007tik 2008ra %30,80ko igoera izan zen eta urte honetarako %9,32ekoa mahaigaineratu digute. Krisi egoerari aurre egiteko beharrezkotzat jotzen den beste neurrietako bat gastu arruntaren murrizketa edo gutxienez mantentzea denean, Udal gobernuak igoera planteatzen du, eta dakigu, orain arte horrela izan delako, zerbitzuen hobekuntzarik ez dakarrela.

Deigarria iruditu zaigu kanpoko kontratazio bidez prestatutako zerbitzuen igoera eta horren adibide adierazgarri bat, kaleen eta eraikuntza publikoen garbiketen kontratak dira, zeinak 2008an 552.860 euro ordaintzen ziren bitartean, 2009an zerbitzu bera 788.170 eurotako kostua izango du, %42,56 gehiago ordaindu beharko dute zumaiarrak zerbitzu berdinetatik.



“Kontu hauek ezartzen duten joera jarraitzen badugu, Zumaiako Udala porrot teknikoeko egoera batera iritsi daiteke epe labur batean”

Sarrerak

2008. urtean 10.588.818 eurotako sarrerak izan ziren, 2007an baino %11,82 gehiago, aurtun ordea 10.550.854 euro aurrikusten dira, aurreko urtearekin alderatuz %0,36 gutxiago. Azken bi urte hauetan sarrerak %11,42an hazi dira baina inolaz ere ez dira alderagarriak epe berean gastu arruntak izan duen hazkuntzarekin, %42a.

Aurrezki garbia

Aurkeztu zaizkigun aurrekontuen emaitzek aurrezki gordina- ren erabateko jaitziera dakarte. 2007. urtean Udalak zuen aurrezte gaitasuna, diru sarreren 100euro bakoitzeko 24 eurotako a zen, gaur egun diru sarrera berberengatik 2 euro besterik ez direnean, gainontzekoa xahutu egiten da (pertsonekin, gaitasuna minimoa da. Gainera, honek inbertsioak burutzeko dirurik ez dagoela dakar berarekin, herriaren gelditzea. Eta krisiari aurre egiteko onartutako beste neurrietako bat, inbertitzea, ezin izango da Zumaian aurrera eramanez herriko agintarien kudeaketa txarra dela eta, ez baitu inongo aukerarik uzten horretarako.

Inbertsioak

2009rako 2.927.730eurotako inbertsioak aurrikusten dira, 2008an baino %24,02 gutxiago. Aipatu berri dugun bezala, garrai honetarako gomendatzen diren neurrien aurkakoa.

Baina gainera inbertsiora behar beste ez zuzentzearekin batera, aurrekontutan dagoena gauzatzeko edo exekutatzeko gaitasunik ez dago EA-ANVko ordezkarien aldetik. Horrela, 2009ko urtarrilaren 13ko datuz, 2008rako aurrikusitako inbertsioen %20,1a gauzatu zen bakarrik. Onartezina!

Udalak duen zorra

Garbi dago EA-ANV gobernu taldeak kreditura jo beharra daukala kontuak koadratzeko. 2007. urtetik, non pasibo finantzarioak 675.000€ ziren, 2009an kreditua 2.603.020euro izatera igaro da, igoera %285,83koa delarik. Ez dago iruzkin edo komentariorik egin beharrik.

Inbertsioak egiteko zor gehiago eskatzen bada, horrek interes gehiago ordaindu behar direla suposatzen du, aurrezki garbiaren oraindik eta beherakada handiagorekin eta egoera honek porrot teknikoera eramaten du Zumaiako Udala.

Lur publikoaren politika

2009ko aurrekontuetan ez dago lur publikoaren erosketara zuzendutako euro bat bera ere. Udal serio batek etorkizunean promozio publikoetarako beharrezkoak diren lur erosketen aurrikuspenak egin behar dituela ulertzen dugu.

Basustagaineke Lur Erreserba iraungitzea benetan larria iruditzen zaigu, mugaketa edo delimitazio honetan interesa eduki ditzakeen edozein promotore pribaturen eskutan erortzeko aukera guztiak zabalduz.

Herritarren partaidetza

Aurtun aurrekontu partehartzaileei hasiera eman diegu, baina gure iritziz prozesu honen informazio guztia batzorde bakarrean eman da eta gainontzeko zinegotzi guztiak ez dute ezagutzarik izan kontutan hartu diren herritarren ekarpenek ezta zein neurritan izan diren berauek ere. Gure aburuz, ekarpen hauek herritarren partaidetzako batzordean ez ezik gaiari dagokion batzordean jorratu beharko liriteke, bere egunean Udalbatza Osoko Bilkuran egin genuen eskaerarekin bat etorritik.

Gardentasun eza nabaritzen dugu eta prozesu honetan lortutako ondorioen lehentasunak, eta proposamenean zenbaterainoko isla izan duten ezezagunak dira guretzat.

Hirigintza

Zuritu ezinezko atzerapenak dituzten hainbat hirigintza jarduerak aipa genitzake, baina gehiegi ez luzatzeko, udal gobernuaren gaitasun falta salatzen dugu Torreegako promozio-ko betebeharrak kobratzeko garaian, 3.700.000euro inguru, Puntanuetako Babes Ofizialeko Etxebizitzaren Plana arrisku bizian jarritik, ez baita inon agertzen dirutza hori kobratzeko asmorik ere.

Aurrekontuen osoko emendakina dela eta

ZUMAIAKO EZKER ABERTZALEA

Zumaiako PNVk osoko emendakina aurkeztu dio Zumaiako Udaleko 2009ko aurrekontu-proposamenari, eta Zumaiako Ezker Abertzaleak puntuz puntu erantzun nahi dio.

Pertsonala

Urte askotan, PNVk udaleko zerbitzu eta lanak azpikontratu egin ditu, baita ezinbesteko edo oinarritzakoak ere. Ezker Abertzaleak konpromisoa azaldu zuen pixkanaka azpikontratak murrizteko, baina horretarako beharrezkoa da Udalak azpikontratutako zerbitzu horiek kudeatzeko gaitasuna izatea, eta hori lortu nahian ari gara.

PNVk inoiz ez du inbertitu pertsonalean, beti murriztera jo du. 2007an, Zumaiako Udalak bere aurrekontu arruntaren %16,3 bideratzen zuen pertsonalera; Gipuzkoan, batez beste, gure tamainako herrietan % 23,5 bideratzen zen; 2007an, Zumaiain 205 € bideratzen ziren pertsonalera biztanleko; antzeko beste herrietan 340 €. 2009an, biztanleko 288 € bideratuko ditugu. Arlo honetan lan asko zegoen egiteko.

2007an, PNVko Udal Gobernuak udal-langileei soldatak % 10 igotzea eskaini zien, baina langileek ez zuten onartu, lanpostuak baloratzeko prozedura prepotentzia handiz egin zelako. Orain, Udal Gobernuak % 8,5 igoerarekin behin-behineko akordioa lortu du langileekin. Orain “hainbesteko” igoera kritikatzeko duten horietan lehen handiagoa eskaini zieten!

Hauxe dio PNVk, hitzez hitz: “Langileen soldata % 5,2 hazi da, EAEn 2008. urtean KPIa % 1,9 igo denean, eta datu hau da aplikatzen dena hitzarmen kolektiboetan eta baita ere Udalhitzen.” Horrenbeste urtean alkatetza eduki ondoren, PNVk jakin beharko luke 2008ko soldata-igoera kalkulatzeko 2007ko KPIa hartzen dela kontuan, eta hori % 4,2koa izan zela. Beraz, soldatak % 5,2 igo ziren 2008an, Udalhitzek dioena aplikatuz (hau da, KPI+1).

Zumaiako Udaleko kargu politikoen soldatari dagokionez, ez da egia % 9 igoko denik; KPI+1 igoko da, Udaleko langileen soldata bezalaxe. Legealdiaren hasieran, Udaleko kargu politikoen soldatak %30 jaitsi genituen; Zumaiako beste politikari batzuen soldatak, berriz, Udala utzitakoan nabarmen igo ziren. Zumaiako alkate ohiak urtean 73.600 € kobratzen ditu; alkateordea zenak, berriz, 77.800 €. Eta Esarben edo Jaizkibian “kolokatu” diren gure politikari ohiak ez dira hortik urruti ibiliko. 70.000 €-tik gora kobra-

tzen dutenak soldata izozteko moduan daude, ez dute askorik nabaritutako krisia.

Gastu arrunta

Gastu arrunta igo dela eta kezka agertzen dute PNVkoek. 2007tik 2009ra % 40 igo dela diote; ez dute esaten, ordea, Mankomunitateari zaborren kudeaketarengatik, Zumaiako Udalak ordaindu beharreko diru kopurua 300.000 €-tik 900.000 €-ra igo dela, (% 300).

Beste adibide bat kale-garbiketarena da. Gaur egun ematen den zerbitzua duela 10 urteko kontratu baten bitartez ematen da. 10 urtean Zumaia asko handitu da, eta garbitasunarekiko dugun exijentzia-maila ere bai. Lanak orain dela 10 urte baino eremu handiagoan egin behar dira, eta hobeto; orduan, normala da gastu hori haztea.

Eraikin publikoetako garbiketaz hitz egiten dute, baina ez dute dena kontatzen. 2001. urtetik, zerbitzu hau ematen duten langileek lan-baldintza batzuk lortu zituzten, baina hitzarmen hura ez zieten aplikatu. 2001. urtetik aplikatu behar zena aplikatzeko, % 33 igo behar izan dugu kontratu honetarako diru-kopurua.

Gastu arrunta da, halaber, Zumaia Lantzenen kudeaketarengatik Zumaiako Udalak Esarberi ordaintzen diona. Azkeneko administrazio-kontseiluan, 2009-2012 epealdian 2.400.000 € kobratzea proposatu dute, eta kopuru hori PNVko ordezkari “egokia” iruditu zitzaizkien; urtean 600.000 € (100.000.000 pezeta) dira. Kopuru hori izugarria da, gehiegizkoa, eta hori horrela ez izateko hartu beharreko erabakiak hartuko ditugu. Hor bai lortuko dugula aurrezki garbia, eta ez langileen lan-baldintzetan.

Inbertsioak

Udalak bere aurrekontuetatik aurrera eramango dituen inbertsioei Gobernu Zentralaren ekarpenen bitartez egingo direnak gehitu behar zaizkio. Beraz, guztira, aurren, guztira 4.500.000 €-ko inbertsioak kudeatu beharko ditugu.

Estatuak ekarpen hauek egiteko arrazoi nagusia da udalek inbertitzeko gaitasuna galtzea, eta hori ez da Zumaiain bakarrik gertatu; Donostian, adibidez, inbertsioen %30 bertan behera utzi behar izan dituzte.

Aurren, Udalaren aurrekontu propioarekin eta Estatuko ekarpenekin, besteak beste hauek eramango ditugu aurrera:



“Hainbeste urtean boterean egonda, nahi zutena eta nahi zuten bezala egin zuten, eta ora-indik ondoriak sufritzen ari gara”

IRITZIA

Herritarren parte-hartzea

“Aurten aurrekontu parte hartzaileei hasiera eman diegu”, eta badirudi PNVk berak proposatu duela. Non egon dira orain arte, gobernuan egon direnean?

PNVk dio parte hartzeko aurrekontuen informazioa batzorde bakarrera eraman dugula, gainontzeko zinegotziek ez dutela informaziorik. Non dago zinegotzien arteko koordinazioa? Interesa izanez gero, erraza da informazioa lortzea, baita prozesuan zuzenean inplikatzeko ere.

Hirigintza

Badirudi PNVrentzat krisiak ez duela inolako eraginik Torreagako, Ortizeko edo Ardantzabideko promozioetan. Krisi honen ardura Udal Gobernuarena izango da!

Udalak baliabide bakarra du etxebizitza-sustatzaileei emandako hitza betearazteko: hitzarmen urbanistikoak. Gaur egun indarrean daudenak, ordea, ez genituen guk sinatu, orain hain kritiko ageri diren horietan baizik. Merkatu espekulazioarekin honetan gora-behera handiak izaten dira, eta azkeneko urteetan Zumaiako Udala espekulazioaren gurpilari abiadura eman dio, zuzenean hartu du parte; orain, krisia etorri eta merkatua geldirik geratu denean, azala behar da ardura besteei leporatzeko!

Hirigintzari dagokionez, behin eta berriz gaitasun faltaz hitz egiten dute. Ederra panorama utzi ziguten, ba! Hona adibide batzuk: Zumaiako Udalak epaitegi askotan ditu demandak jarriak, 7 edo 8tan, orain arte izan duen jarrera prepotentearen adibide; Alde Zaharrak oraindik ez du Birgaitze Bereziko Planik idatzita; Udalak ez dauka eginda Ondasunen Inbentariorik (zer lur dituen, zein eraikin, zer artelan, zenbat aulki...); Udalean espedienteetan txosten ugari falta dira, egin nahi zena idazkariak ezin zuelako babestu... Horra PNVren gaitasunaren adibide batzuk.

Hainbeste urtean boterean egonda, nahi zutena eta nahi zuten bezala egin zuten, eta ora-indik ere horien ondorioak sufritzen ari gara eta etorkizunean ere, zoritxarrez, sufritu beharko ditugu.

Zumaiaren hobe beharrez, prest gaude hitz egiteko, iritziak entzuteko eta partekatzeko, kritika konstruktiboak onartzeko, aurrekontuetan ere elkarlanean aritu eta akordioak lortzeko. Baina badirudi guztiok ez dugula berdin pentsatzen. Geure aldetik, pixkanaka gauzak aldatzen ari gara, eta horretan jarraitzeko konpromisoa berresten dugu, baita aurrekontuetan ere.

Narrondorantz oinezkoentzat pasabidea (eta obra aprobetxatuko da behar bezalako zerbitzuak bertaraino eramateko: ura, gasa, zuntz optikoa...); Alondegia berritzeko lanak; Jadarre birgaitzeko lanak; Oikiak eta Oikiako industrialdeak ur-hornidura egokia edukitzeko proiektua; Artadiko ur-depositua handitzea eta Artadiko herri-eskola zenari irtenbide bat ematea; Julene Azpeitia eskolan estaldura bat egitea; Aita Marin 80 aparkaleku baino gehiago ateratzea...

Lur publikoaren politika

PNVk dio 2009an lur publikoa erosteko ez dagoela euro bakar bat ere. Partida hori egon badago, eta legeak erabilera anitzak aurreikusten dizkio; erabilera horietako bat da ekipamendu publikoak gauzatzea, eta horretara bideratuko dugu aurten dirua.

Basustagañan promotoreen interesak erabiltzen dituzte mamu bezala. Gaur egun Basustagañan ezin da etxerik egin, eta nekez interesatuko da promotoreen bat. Erosiak dituzten lurretan ez badute etxerik egiten (Torreaga, Ortiz, Ardantzabide...), nola erosiko dituzte bestelako lurak, etxerik egin ezin bada?



Euskal Herriak behar duen

**ALDAKETA
DEMOKRAZIA**

3.000.000

D3M

aurrera begira

AMETS BATEN BILA

Elkarrizketarako bidean nindoala Fred Astaire handiaren pelikula bateko musika nuen buruan. *That's entertainment!* abesten dute aktoreek *The Band Wagon* pelikulako une batean. “Hau ikuskizuna da!”, diote pozaren pozez. Kanta horren leloa egokia iruditzen zait ikuskizunaren munduan sartzea helburu duen elkarrizketatuarentzat.

TESTUA: JUAN LUIS ROMATET
ARGAZKIAK: ARNAITZ RUBIO APREA

Ez da erraza Jon hitz bakarrean definitzea: DJa, aktorea, jaialdi baten antolatzailer... Zer da eta zein da Jon Urbieta? “Txikitan *Bullas* izengoitia jarri zidaten, baina ez dut uste orain horrela ezagutzen nautenik. Showmana? Pertsona polifazetikoa? Zeuk aukeratu”.

Txikia zenetik izan du Jonek ikuskizunerako grina. “Sei bat urte nituela, santelmoak hasi baino hilabete lehenago, etxeko balkoira atera eta danborradako musika jarrita, zuzendariaren plantak egiten nituen”, dio aurpegitik irribarrea kendu ezinik. Txikitako amets hura gauzatzea lortu zuen urte batzutura: haurren danborrada zenbait urtetan zuzendu ondoren, azken bietan helduena gidatzeaz arduratu da. Aurten, baina, igoko al da zuzendariaren aulkira? “Ez du uste. Iaz izandako arazoan ondoren, ez”.

Ekitaldi herrikoiak gogoko ditu, baina telebistaren distirek itsutzen dute

gehien. “Txikitan telebistako irudiak grabatu ohi nituen, baina ez saioak... iragarkiak grabatzen nituen! Gero, arrebak eta biok lehiaketa egiten genuen iragarki gehien zeinek asmatzen zituen erabakitzeke”.

11 urterekin estreinatu zen telebista munduan, *Betizuko* karaokean, hain zuzen ere. Bi urte geroago, *Betizuxen* lehiaketan parte hartzea erabaki zuen. “Oso lotsatia naiz; asko kostatzen zait lehen pausoa ematea eta norbaiten beharra izaten dut horretarako. Une hartan Mikel Zubimendi han izan ez balitz, ziur aski ez nintzateke atrebituko”. Bigarren edizioko lehiaketa irabazi eta gero, saioan sortu zen taldeko partaide bihurtu zen: “Urte hartan 32 kontzertu eman genituen”. Urtebeteren ondoren taldean abesteari utzi zion, baina telebista saioan jarraitu zuen denbora batean: “Herriz herri ibiltzen nintzen ka-



BI HITZETAN

Jaio: Zumaia, 1988
Zaletasunak: 13 urterekin *Betizu* taldean sartu zen. Iaz *Go!azen* pelikulan aktore lanetan aritu zen. *High School Musical* jaialdia ere antolatu du bitan

"Musikarekin edo umorearekin lotutako saioetara bideratu nahi dut nire bizitza"

mera gizon eta gidoilari batekin, haurrei elkarrizketak egiten."

Esperientzia hura amaitu eta gero, sekulako arrakasta zuen saio batean sartzeko saiakera egin zuen. "Operación Triunfo"rako (OT) hautaketetara agertu nintzen hirutan. Donostiako Kurasaalean egin ziren eta jende pila hurre-ratu zen. Batzuek sekulako begi-zuloak zituzten, gaua Kurasaalen bertan igaro ondoren. Frikiak ere ez ziren falta: batzuk modu arraroan moxorrotuta, beste batzuk gaitekin...". Hiru saiakeretatik bitan lehen kanporaketan geratu zen; bigarrenean, baina, hirugarren fasera heldu zen: "Ehun onenak Bartzelonara eramán gintuzten eta kameran aurrean aritu behar izan genuen. Segituan jakiten zen zein ziren hautatzaileen gogokenak, kamerak beraiengan interesatzen baitziren gehien". OT bezalako saioen defentsa egiten du: "Ez dut uste gauza bera direnik OT eta *Gran Hermano* bezalako saioak. OT'n zure dohainak erakutsi behar dituzu zure ametsa bete nahi baduzu".

Telesaila laister

Ez zuen lortu OT'n sartzea, baina musika eta dantzaren mundu horretan jarraitu du. Batetik, *High School Musical* (HSM) izeneko jaialdi-lehiaketa antolatu du bi urtez Maria eta Jose ikastetxean; bestetik *Golazzen* pelikulako aktore taldean aritu da. "HSM *izotz gainean* izeneko ikuskizuna ikusi nuen behin Euskal Telebistan, eta horrelako jaialdia Zumaian antolatzea okurrutu zitzaidan. Kultur etxean aurkeztu nuen proposamena, eta nahiz eta oso baikorrak ez ziren, baimena eman zida-



ten". Ekimenaren arrakasta ukaezina da: "Lehen urtean 16 taldek hartu zuten parte eta bigarrenean 25". Iritziak, baina, kontrajarriak dira: haur kopuru hori oholtza gainera igo eta dantzan jartzea txalogarria da askorentzat; hautatutako modeloa, baina, HSM delakoa, kutretzat jotzen dute askok. "Irakurri ditut iritzi horiek. Zer esango diet, ba... Euskal Herria zabala da. Dena ez da bertsoak,

trikitixa eta halakoak. Jendeak interes zabalagoak ditu".

HSMren fenomenoari erantzunez Pausoka ekoizpen etxeak ETBrako egindako *Golazzen* pelikulan ere parte hartu du Jonnek. "Erregeen gauean, urtarrilaren 5ean, eman zen ETBn. % 15eko *sharea* lortu zuen eta 223.000 lagunek ikusi zuten... [kazetari honek harridura aurpegia jarri du datuak buruz dakizkiela ikusita]. Es-



aten dizut, ba, telebista gogoko dudala! Egunero ikusten ditut telebistako audientziak!". 2010. urtera arte du kontratua ekoizpen etxearekin. "Oraingoaz, zenbait ekitalditan ari gara parte hartzen. Uda honetan berriro filmatzen hasiko gara; ziur aski, telebista sail bat izango da".

Bitartean Euskadi Gazteako *Dida* irratsaioan kolaboratzen du astean bi egunetan eta asteburutan musika jartzen

aritzen da, "ezkontzetan eta beste ekitaldi batzuetan". Bere ametsa, baina, telebista edo irrati munduan sartzea da. "Musikarekin edo umorearekin lotutako saioetan lan egitea dut gustuko. Mundu horretara bideratu nahi dut nire bizitza".

Elkarrizketa amaitu eta etxera bidean, Fred Astaireren pelikula zahar hartako musika etorri zait berriro ahora: "*That's entertainment!*"



INDEPENDIENTES
PARA DEFENDER NUESTRO MODELO LINGÜÍSTICO

INDEPENDENTEAK,
GURE HIZKUNTZA EREDUA DEFENDATZEKO

INDEPENDIENTES
PARA DEFENDER NUESTRO MODELO LINGÜÍSTICO

INDEPENDENTEAK,
GURE HIZKUNTZA EREDUA DEFENDATZEKO

INDEPENDIENTES
PARA DEFENDER NUESTRO MODELO LINGÜÍSTICO



INDEPENDIENTES
PARA DEFENDER NUESTRO MODELO LINGÜÍSTICO

INDEPENDENTEAK,
GURE HIZKUNTZA EREDUA DEFENDATZEKO

INDEPENDIENTES
PARA DEFENDER NUESTRO MODELO LINGÜÍSTICO

INDEPENDIENTES
PARA DEFENDER NUESTRO MODELO LINGÜÍSTICO

DENBORALEAK UTZITAKO IRUDIAK

ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Negu gorri honetan eguraldiak ez digu bakerik eman. *Bat-bateko ziklogenesia* zer den ere ikasi dugu. Euria etenik gabe, haize bortitza, olatu ikaragarriak...Arazoak arazo, irudi ederrak ere utzi dizkigu –www.baleike.com-en dituzue argazki gehiago eta bideoak–.





Urtarrilaren 18an hasi eta astebetez olatu ikaragarriak izan ziren gure kostaldean. Bat-bateko ziklogenesiak urtarrilaren 24an astindu zituen bazterrak. Uholdeak berriz, 27an gertatu ziren.





iba
pre
txe

ORAIN INOIZ BAINO GEHIAGO

baleike.com

- ✓ Eguneko albisteak.
- ✓ Multimedia atal berritua: bideoak, argazkiak...
- ✓ Blog komunitatea: zure bloga sortzeko aukera.
- ✓ Gida komertziala, iragarki laburrak...
- ✓ 500 erabiltzaile erregistratu.
- ✓ 500 bisitari egunean.

Eta zure publizitatearentzat...

*Leiba bat
mundura*

Iragar zaitez baleike.com-en.



OTEZURI, GUZTION ETXEA



TESTUA: AINARA LOZANO LASA
ARGAZKIAK: GORKA ZABALETA

Otezuri du izena Puntanoetan zabaldu berri duten gerontologikoak. Bertako toponimoa bereganatu du zumaiar guztien etxea izatea helburu duen egoitzak, nahiz eta bertan aitona-amonak bakarrik bizi. Horretarako hainbat eragilerekin proiektuak landu nahi dituzte arduradunek, komunitate bat osatzeraino. Gu ere bertaratu gara egoitza berrira, bertako bizilagun eta langileak ezagutzera.

2007ko maiatzean jarri zuten lehen harria eta jada errealitate bihurtu da Zumaiako gerontologikoa. Duela bi aste hasi ziren aitona-amonak bertaratzen eta lehen asteburuko haize bortitzek ere ez zuten lortu bertako zuzendari Jose Luis Madrazok “proiektu arrakastatsua” bezala definitu duen egoitzaren irekiera zapuztea. Langileak, egoitzako aitona-amonak eta familiak zaintzea da bere lana, eta ez da ez erraza oreka hori lortzea. Izan ere, zentroak Usurbildik Azpeitia arteko zerbitzua eskainiko die mendekotasuna duen hirugarren adineko pertsoneri eta beraien familiei. Egoitza berriak 109 plaza ditu eta horietatik 65 Gipuzkoako Foru Aldundiak kudeatuko ditu zuzenean; beste 44ak, berriz, pribatuak izango dira. Dagoeneko 30 bete dira. Bi unitate psikogeriatriko ematen ditu, gainera. “Proiektu polita da. Oso soziala. Hemen ezintasuna dutenak edo Gureak enpresako kideak ere baditugu lanean. Gainera, gerontologikoan lan egiteko ikastaroa ere eskaintzen dute Mankomunitatean, herritarrek laneratzeko programaren baitan eta hemen praktikak egiteko aukera izango dute. Giza balio ugari jorratzen dira eta horrek aberastasuna eman dio proiektuari”, azaldu du Madrazok. Gipuzkoako Foru Aldundiaren egoitza Gerozerlan S.L. enpresak kudeatuko du. Otezuri bultzatzeak 7,6 milioiko kostua izan du.

BELARDITIK BASORA. Otezuri sei solairu ditu. Solairu bakoitzak jangela du eta lehenengo pisutik bosgarrenera daude logelak, egokitutako komunekin. Hala ere, momentuz 3., 4. eta 5. solairuak okupatu dituzte. Belardi izenekoetik hasi dugu Madrazorekin bisita, naturarekin jokatutako solairuei izenak jartzeko. Azken pisuan terraza eder bat dago, eguraldi ona egiten duenean aitona-amonak

“Familiak harro egon behar du hona ekartzeko erabakia hartzen duelako. Guk, behintzat, horrela sentitzea nahi dugu”

eta familiek goza dezaten. Bizilagunek duten mendekotasun mailaren arabera banatu dituzte pisuak. Bosgarrenak Mendi du izena eta bertan aurkitu ditugu bizilagunak bazkaltzen. Laugarren pisuko logeletatik itsasoa ikusteko aukera dute aitona-amonak eta horregatik jarri diote Itsaso izena. Hirugarrenetik, berriz, haurrak jolasten ibiltzen diren parkea dute aurrez aurre jangelan daudenean eta sukaldetxea ere jarri diete nahi izanez gero erabili dezaten. Koskol du izena horrek. Hondar solairura jaitsi gara, eta Madrazok adierazi digunez, Malkarren (lehenengo solairuaren) antzekoa omen da. Behe solairuan edo Iluntze izena jarri dioten gunean zuzendaritza, gizarte langile, psikologo, mediku, erizain, zaintza gela, administrazioa eta ile-apaindegia daude. Bertan ere bisitari guztiei irekita dagoen kafetegia zabaldu dute, baita balio anitzeko gela bat ere. Zuzendariak jakinarazi duenez, gerontologikora deituz gero, eskaera egiten dutenek erabiltzeko aukera izango dute, bai elkarteek, baita norbanakoek ere. Kanpoan lorategia jartzen ari dira eta bertakoek landatutako loreak nahi dituzte jarri bertan; horregatik, altuera berezia du guneak, elbarrituek ere landatzeko aukera izan dezaten. Sotoa ere badu eraikinak eta Basoa du izena. Beila-



Instalazio modernoak ditu Otezuri gerontologikoak: sukalde ederra, jangelak solairu guztietan, kafetegia, ileapaindegia...



tokia, sukaldea eta garbitegia daude bertan. Hantxe aurkitu ditugu langileak aitona-amonen arropak beraien izenekin markatzen. “Batzuek arropa gehiegi ekartzen dute. Batek hamabi galtzontzilo ere ekarri ditu!”, azaltzen dute umore onez lanean fin dabiltzan emakumeek.

HARRO EGOTEKO ERABAKIA. “Edadetua etxetik ateratzea, familiak aitona edo amona gaizki dagoelako ezin duelako zaindu, oso gogorra da. Baina familiak harro egon behar du hona ekartzeko erabakia hartzen duelako. Guk, behintzat, horrela sentitzea nahi dugu. Eta behin erabaki hori hartuta, guri exijitzeko eskatzen diet. Baina baita beraiek gerturatzea ere, familia beti izango baita familia hemen bizi denarentzat. Pauso hori eman eta gero, bertakoak ongi egotea lortu behar dugu. Agian ez da konturatuko, baina ongi zainduta egongo da behintzat”, nabarmendu du Madrazok. Horretarako, ezinbestekoa da familia ongi egotea, bestela zaila baita behar duenari ematea. Izan ere, zenbait gaixotasun oso gogorrak dira, Alzheimer kasu. Jakintza alor askotako ekipoa osatu dute gerontologikoaren helburuak lortzeko. Gizarte langileak, medikua, erizainak, begiraleak... 60-70 langileko taldea osatzen dute egoitza berrian. “Erizainen lana azpimarragarria da, hemengo bizilagunek beraiekin pasatzen dute eta denbora gehien. Meritu handia dute langile hauek”.

Otezuri aitona-amonak 08:00etan jaikitzen dira. Garbitu, arropa jantzi eta txukun jartzen dira. Ondoren, 09:30ak aldera gosaria izaten dute eta 10:30ean hasten dira ekintzekin. Oraindik mantentzen dituzten balia bideak lantzea dute helburu ekintza hauek eta psikologo eta begiraleen laguntzarekin egiten dituzte. “Otezuri beraien etxea da eta ezin dituzu behartu. Berak nahi badu egiten ditu ariketak, baina guk beti gomenda-



tzen diegu egitea. Motibatzen, behintzat, saiatzen gara”. Bazkaria 13:00etan izaten da, eta arratsaldean, batzuek siesta egiten duten bitartean, ariketa ludikoagoak egiten dituzte besteek. “Aisialdiko ekintzak izaten dira arratsaldean. Bingoan jolastu, kontu kontari aritu... bakoitzaren beharren arabera izaten da gauza bat edo bestea. Siesta egitea ez diegu gomendatzen, nahiago izaten dugu ahal den gehien nekatzea gauera arte. Baina eskatzen badute, kuluxkatxoa egiten duten”. Afaria 20:00etan ematen diete. Familia edo lagunak nahi dutenean etor daitezke Otezurira eta aitona-amonekin zentroan bertan jateko aukera ere izaten dute.

PUBLIZITATEA



Arrain eta mariskoak

Barazkiak eta aurrez prestatutako jakiak

Zuloaga plaza, 1
tel. 943 862 309



Alai auzategia 8
20750 Zumaia (Gipuzkoa)

Disainu zerbitzuak
tel.: 943 14 31 22

a3 kopa eta disainu zerbitzuak
a3zumaia@toma.es

Kopiak eta materiala
tel./Faxa: 943 14 31 20



Emilio Perez
Elektrogaita, telefonoa eta instalazio
elektrikoen salmenta eta konponketa

ADI

BASADI 2 B
20750 ZUMAIA
GIPUZKOA

tel. fax. 943 535 157
E-maila: adiele@euskalnet.net



AIZPURUA

LIBRURU DENDA

Aita-Mari auzategia, 17
tel. 943 861 569



ALBERDI
dekorazioa

- Eskaiola
- Pladur-a

696 726188
943 143261



gizonak berri moda

ALBERDI

Erribera kalea, 6 Tel. 943 861 155



ALGORRI TABERNA

ERRIBERA KALEA 2 - ZUMAIA



ANA
ESTILO SARTAN

Ignacio Zuloaga enparantza
tel. 943 861 157 ana@euskalnet.net



ILEA PAINDEGIA

D'Ana


Karibauri plaza, 6. beheko tel. 943 117 436



Arkatza
Paperdenda

Eskola eta buregoko materiala, fotokopiak,
enkusadernazioak, plastifikazioak, fax publikoa...

Erribera, 4 tel.-fax 943 143 422



PANDECIA
deko

OGI-EBER



AUTOS ZUMAIA

Urola plaza, 3-5 tel. 943 861 485



Bakur
ITZULPEN ETA ARGITALPEN
ZERBITZUAK S.L

San Isidro, 25
20740 Aroa tel./Fax 943 148 306
bakur@euskalnet.net



Bosodi
albaitaritzza

Albaitaria
Maki Garmendia

Basadi, 7, beheko - tel. 943 143 310
bosodi@euskalnet.net
www.bosodi.com

Guztira: 11-13 / Aroa: 15-19:30 / Aukerak gutxienez eta larritan 8:30
Larritan: 905 728 707 Estu eta zuzen



BASUSTA
ERRETEGIA

Petala Elizkerria, 25 tel. 943 862 073



Bikoteentzako gelak ere badaude, behar izanez gero.



HERRITARREI ZABALDUTA. Zumaian oso ondo txertatzea eta oso herritarrak izatea dute helburu egoitza berriko arduradunek, “zentroa aberatsagoa izan dadin”. Auzo gazte batean dago, gainera, eta horrek lagundu egingo duela nabarmendu du zuzendariak: “Etorkizunean etxe oso komunitarioa izango da. Herriko kultur, gizarte, kirol eta gazteen elkarrekin kontaktuan jarriko gara hainbat proiektu bultzatzeko asmoz. Gerontologiko komunitario bat egiteko. Dagoeneko Nagusilaneekin jarri gara kontaktuan. Aitona-amonak egoitzatik kanpora ere ateratzea nahi dugu”. Umeez aitona-amonak ikustea eta aitona-amonak ere gaztetxoak ezagutzea nahi dute, errealitatea azalduz herritarrei. “Artistikoki ere egin daitezke proiektuak, baita bestelakoak ere. Adibidez, Zumaiako sukaldari bat etor daiteke egun batean bazkaria prestatzera”. San Juan egoitzarekin ere elkarlanean arituko dira guztia lortzeko.

Gipuzkoako Foru Aldundiak Menpekotasunaren Legearen arabera ematen ditu Otezuriko plazak. Horri buruzko informazioa jaso nahi dutenek Udaleko Gizarte Zerbitzuetara jo beharko dute lehenengo: “Diru faltagatik ez da inor kanpoan geratuko. Bizilagunek dirua eduki edo ez, plaza bat eskatzeko aukera izango dute. Hori bai, dirua duenak erabiltzailearen ekarpena egingo du. Hala ere, Foru Aldundiak hartzen du bere gain kostua. Gipuzkoa da une honetan Estatu mailan horrelako plaza bakoitzarentzat diru gehien jartzen duena”. Zumaiako itxaron zerrenda “kontrolatuta” dagoela jakinarazi du Madrazok, San Juan eta Otezuriren artean plaza bat

“Diru faltagatik ez da inor kanpoan geratuko. Bizilagunek dirua eduki edo ez, plaza bat eskatzeko aukera izango dute”

edukitzeko aukera baitute bizilagunek. Plaza bat eskuratzeko zerrenda bakarra dago eta bizilagunak Gizarte Zerbitzuetara gerturatzerakoan hango langileek baloratuko dute nola dagoen edadetua. Mendekotasunaren Legearen arabera egingo zaio azterketa hori. “Gerontologikoa azkeneko errekurtoa da. Badaude beste aukera batzuk aurretik: etxez etxeko laguntza, pisuak egokitzeko Foru Aldundiak eskaintzen duen laguntza, eguneko zentroa...”. Gizarte Zerbitzuetan bideratu eta gero, Foru Aldundiak erabakiko du eskatzailea nora bidali. Informazio gehiago eskuratu nahi duenak gerontologikora ere dei dezake, ondoko telefono zenbakira: 943 143339.

Otezuriren inaugurazio ofiziala martxoan izango da eta ordurako egoitza ehuneko ehuneko martxan izatea espero dute arduradunek. Badirudi batzuk irrikitan daudela; izan ere, gure bisitan egoitza berriko aitona batzuek aurreratu ziguten inaugurazioan txistua jotzera animatuko zirela herritarrentzat. ■

BEDUA ITURGINTZA S.L.
ANTONIO AZPILLAGA



- KALEFAKZIOA
- ZORU BERO-EMAILEA
- GAS INSTALAZIOA
- GAS NATURALA
- BAINUGELAK ETA SUKALDEAK

Jose Mari Kortu Industriegunea, 9
20750 ZUMAIA - Gipuzkoa
tel. 943 143 369

EGOKI



Erloju eta bitxi denda

E. Gurrutxaga plaza, 6
tel. 943 861 787

ekin
Ekin Instalazioak S.L.

Erribera kalea, 6 20750 Zumaiá tel. 943 143 097
ekin@ekin.si.com www.eekin.si.com

Instalazio elektrikoak
Telekomunikazioak
Informatika
Internet



DIGITAL+



Erribera, 8 tel. 943 861 694

ERROTA



ERROTA
OPIL-OKINDEGUA
SERBIZIO AUZORA, 32
20750 ZUMAIA
TEL: 943 860 000
943 860 612
FAX: 943 860 977
errota@errota-okindegua.com

Hofmann

www.hofmann.es helbidean sartu
eta eman gure kedigo zerbakia:
340658



Exelste Gurrutxaga, 8 tel./fax: 943 143 395

FARMA ZUMAIA
Parafarmazia • Belar-denda
Tel. 943 865 323

PRODUKTUAK

- Urte eta haurretatik, jentziak, baimendutakoak, hainko eta besteko jentziak...

ZERBITZU BEREZIAK

- Dentes, hezurjario, iraketa, Pines de Bach, Masajak (Terapiak), Kiropraktika, Leuzizak, Estresaren, Arbolaren, Suroaren, Zehatzko arazoak... (kontaketa) Auzuratze, farmazien eta herriko gela

ERROTTA, 1 - BERRA - ZUMAIA

Galdona



baudintologia

Mendeb. Inamasa, 1 tel. 943 861 117 - 943 143 346
Juan Belmonte, 15 fax: 943 861 330

GANBARA

Taberna

Juan Belmonte, 5 tel. 943 861 057

GAZTE, S.L.
ELEKTRIZITATEA



Era guztielako instalazioak etxebizitza, pabiloi eta herriko argietan

Trenbide pasealekua, 5. pabiloia tel./fax: 943 143 402 mugikorra 610 262 617

GOFI

Gazte Surf

Baltasar Etxabe, z.g. tel. 943 860 959



GOIKO TABERNA

Erribera, 9 tel. 943 861 391

Gure Txokoa
taberna



Upela plaza, 4
20750 Zumaiá
Tel.: 943 86 09 70

English School
Harvest
 ...eta udaran ingalaterrara ingelesa praktikatzera
 San Jose, 11 bis. tel. 943 543 334

CAPI
Ibaitgain
 inmobiliaria
 Ricardo Azkue
 APl 309
 Txerri Agne 4, behea
 tel. 943 862 851
 faxa 943862748
 rizkue@ibaitgain.net

*Shinza
ZUMAIA*

ilarzi
 Alai auzategia, 2
 Tel. 943 24 50 20

IRUITZ
 Ikapoindegi Mistoa
 San Felice, 12 • 20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
 tel.: 943 860 760

ITSASKI
 SUPERMERKATUA
 Urumea kalea z.g. tel. 943 143 058

Itzurun, S.L.
 Aroztegia
 Arak, ehokak, sarrak, sarrak erosituzak...
 Itzurun Zuhaitzidea, 2 behea
 Tel. / Fax: 943 86 15 65

ORRAZTEGI ZUMAI A
 943 862 083

KABI'
 TABERNA
 Ipelena Kalea, 10
 943 117 427

JUARISTI
 jatetxea
 Arrainak eta haragiak aukeran
 Eguneko menua
 Jangela klimatizatua
 Basko-uzategia, 10 tel. 943 861 853

kalarí
 Upela plaza, 8
 tel. 943 862 517

Kresala
 Taberna
 Julio beobide 3, tel. 943 019 869

Larraitz ile-apaindegia
 Basadi-uzategia 5 behea
 Zumaia
 tel.: 943 14 30 41

malaur

Itzurun



Itzurunen ezohiko ikuspegia. Orain etxe blokeak dauden tokian zelaiak eta baratzak besterik ez zeuden 60ko hamarkadan.

Zer da? Hondartza eta inguruko lur-sailak.

Non dago? Larretxo inguruan, mapa toponimikoko F2 koadrantean. Orain etxeak dauden tokian lehen zelaiak eta baratzak zeuden.

Nola idatzi izan da? *Ynçuru* (1344. urtea), con el lenzinar de *Yzcuran* (1389), *castañal en Izurun* (1771), *Ytzurun* (1832) eta punto llamado Talaya y *Itzurun* (1891).

Nola esaten da? *Itzún*, *Itzúun*.

Lotutako izenak Zumaian: *Itzuruntxiki* (kala), *Itzurunzelai* (etxea, lur-saila)

Antzekoak beste herrietan: *Izurun* (Donostia), *Itzunaga baserria* (Zeanuri), *Itzulondo* (Zegama), *Itzuregi* (Alkiza), *Itzurmuño* (Oñati), *Itzue baserria* (Lezo), *Izurola* (Aia).

Azalpenak: toponimo garrantzitsua eta ezaguna da, askok Donostia hiria izen zaharrena IZURUN zela esaten dutelako, 1014ko agiri batean oinarrituta. 1101. urteko beste agiri batek zehazten du Donostiako Monasterioaren jabetzako

etxe edo etxalde bat besterik ez zela (Auñamendi entziklopedia).

Badaude izen batzuk hasieran IZ dutenak eta Azkueren ustez itsasoarekin zerikusia izan lezaketenak: izurde (itsas urde?), izpazter (itsas bazter), Izaro (irla), I(t)ziar, etab. Gero Mitxelenak erakutsi zuen giza urde zela izurde izenaren jatorria, eta hasieran IZ zuten asko HAITZ izenetik datozela ere ondo-rioztatu da. Hala ere, itsasoaren ondoan hara zer beste izen daukagun: Izustarri (goitik begiratuta, itsas uztarri?)

Ez genuke beste hipotesi hau baztertu behar: ihitza (Iza abizena, Izaga, Izu aldaera ere bai) ihi landarea ugari dagoen lekua da, gaztelaniazko juncal. Mitxelenak aipatzen du intzura (aintzira) "lugar pantanoso" dela. ITZURUN izenaren Erdiko UR osagaiak leku hezearen hipotesia indartu lezake. Amaierako -UN hori, berriz, -UNE edo -GUNE atzizkiaren arrastoa izan daiteke. Beraz, "ihiz jositako padura" izan daiteke esanahietako bat, eta gogoratu lehen ura Ondartxo alderaino sartzen zela. ITZURUN abizen edo deitura ere bada, eta gizonezkoen izena ere bai, gutxienez izen hori duen mutil bat ere ezagutzen dugu-eta.

Pikote



*Aldapa pikea dago
Andikarrekatik gora.
Duela gutxi berri-
dute baserria, baina
oraindik ere ikusiko
ditugu alagarroak
lehortzen.*



Zer da? Baserria, lursaila.

Non dago? Ollaostagañetik itsasertzerako bidean (mapa toponimikoan D3 koadrantean).

Nola idatzi izan da? Una pieça labradía que es clamada *Picote* (1344. urtea), que entre *Antequera* y *Picote* ay alguna partida de leyña (1671) eta *Pikote* (1936). Agiri ugari daude, antzina-antzinakoak.

Nola esaten da? *Pikóte*.

Lotutako izenak Zumaian: *Pikotealdea* (lursaila), *Pikoteazpia* (haitzarteko gunea), *Pikotemendia* eta *Pikoterreka*.

Antzekoak beste herrietan: *Pikota* (Lursaila, Aizarnazabal), *Pikotako erreka* (Baztan), *Pikoetako bizkarra* (Baztan),

Pikoetako mugarría (Aduna, Andoain eta Zizurkil) eta *Pikokarate* baserria (Oiartzun).

Azalpenak: Pikondoarekin zerikusia izatea litzateke logikoa, alegia, piko ugari dagoen tokia adieraztea, Pikoaga edo Pikoeta bezala; beste zuhaitzekin, adibidez, hor daude Pagoeta, Lizarreta...

Mitxelenak ez du bazterten batzuetan PIKA osagaia "pike" edo "pendiza handiko aldapa" izatea, eta jakinekora non dagoen baserria, amildegiaren ertzean, eta Andikarrekatik zuzenean gora hartuz gero, ez da ordeka-ordeka!

Deba alderantz hartuta Zumaia azken baserria da, herrigunetik urrun samar geratzen dena. Horregatik, ez da harritzekoa beste tokietan "pikutaraino" dena adierazteko, Zumaian "Pikoteraino" ere esatea. *Baloia Pikoteraino bota du Telmok!*

MAITE
ILEAPAINDEGIA



Amaiko plaza, 2 tel. 943 143 278

CROISSANTERIA



pizzak
hanburesak
bokotak...

marina

Baltasar Etxabe, 2 Tel. 943 86 22 46



Maxi
ileapaindegia
solarium

etxezarreta, 9 tel. 943 861 021 lasonet.com/maxi



MENDI - ONDO C.B.
Elektrizitatea

Urola plaza, 21 tel. 943 860 074 - 943 861 569



METRO
taberna

ogitartekoak
pintxoak

Upela plaza, 7
tel: 943 862620

"Muagi"

errehabilitazioa
kirol medikuntza
fisioterapia

RPS: 034/97 Aita Mari, 3 biskoa tel. 943 861 031



OSA
BERNIZATUAK

Zoruen kutxilaketa eta bernizaketa
Parketa jartzea

Estazioko kalea, 12 tel. 943 861 412 - 866 364 140

Nikol  **Enea**

TABERNA

Amaiko plaza



OSKARBI
KIROLAK

Aita Auzalegia, 14 - Arramitz, 1 Tel. 943 143 112
oskarbi@oskarbi.com

Ostolaza
Altzariak

Julio Seoane Ibilakia, 1
20750 ZUMAIA (Gipuzkoa)
ostolazabizkaia@ostolaza.com

Tel./Faxa: 943 86 13 25



OSTOLAZA

OSTOLAZA ZUMAIA S.L.

Jaxe Mari Kortu Industriadunak, A1 - 4. pab. 20750 Zumaia (Gipuzkoa)
Tel. 943 86 50 68 - Faxa 943 86 13 45
www.ostolaza.com - e-mail: osto@ostolaza.com

Rosi Garbiketak

Etxeak eta dendak
Enpresa eta auzo lanak
Arropa garbiketa eta tindaketa

Basadi, 3-A tel. 943 861 670

SOLOZABAL AUTOESKOLA

- Klase teorikoak zein praktikoak norberak nahi dituenean.
- Klase teoriko ikusentzunezkoen abantailak erabilita.
- Merkantziak eta bidalariek garrantzeko eta nazioarteko agentzietarako ziurtagiriak lortzeko ikastaroak.



P. Etxezarreta, 16 bis tel./faxa 943 861 416

ALBERTO URANGA LINAZISORO

‘ALBERTO BONBILO’

(2)

ABELIN LINAZISORO

Zergatik?

A: Familixa han laga eta beak bakarrrik ein zian buelta. Hiru eo lau almazen bazitian hark, Altos Hornosko sozixua huan, han ofizinan gaztetan lana eindakua gainea eta geo, Donostixan, Bitorixan, Bilbon... negoziXuak jarrita zitian. **K:** Hark andria frantsesa zian. Buelta ein behar zunian gure amai, Irungo maristen bitartez, abixua pasa eta frontera jun huan haren bila. Donostiko Hotel Maria Cristinan hartu zian ostatu, baina han frankistak gure ama kalea bialdu eta denenitu ein zien. Gure amak jo dik berriro Irungo maristeta, baina hura 24 orduan hantxe hotelian hil huan. Bihotzekuak emanda.

Zer egin zuten gorpuaekin?

Gure amak haixen pariente batzuei, abertzaliak, abixatu zien nausixa hil ein zikola. Haixek abogauak eta gauzak jarri zitien eta Donostitik Bilbora ekarri zien. Hildakoai laguntzen, gure ama, osaba Guillermo, Iñaki eta Manolo Iturri hittuan, eta gu danok itxian aittattakin. Itxian bildutako lore danakin erramiliak ein ginitien, danok nearrez, Bonbilo aurrian gelditu huan kotxia, gure loriak sartu eta Bilboa. Geo haixek taxi bat jarri ziu en guria, Zumaira bueltatzeko.

Eta bizikletena?

K: Bi bizikeleta ere gorde ein hittuan, baina bat etorri huan etxea esaten: Bizikeletak bulto haundixa dake eta harrapatu eingo dizue. Ekarrri hitzatzu guk badaukagu lekua gure garajian eta ez due pentsatu



“Atxurra aurea junda ziu en eta bitartian gasolin en surtiduria eta dana kendu zizku en. Surtiduria bete-betia zian eta zumaiako jende hau kotxiakin etorri, di-da, gasolinez bete Eta martxa eiten zien. Depositua hustu arte.”

ere eingo han dabenik. Gure amak sano sano eman zizkok eta, geo zer da eta tropak sartu zianian bi bizikeleta haixek aurre aurrian bandera espainol haundixakin! **A:** Bizikeleta eerrak hittuan. Errueda zabal-zabalakin, neskaen bizikeletak, kanbixo eta guzti, eta... Frantzitik ekarritakoak hittuan, e!

Bonbilo errekisatzera zumaiarrak joan al ziren?

K: Bai. Kanpoko bat eta beste danak zumaiarrak. Aldekoaren itxia rekisatze ko Donostitik etorri huan ordena eta militar bat etorri huan eta beste danak zumaiarrak. Militar hau huan, ba, gure amai abixatu ziona Zumaiako reketiak aittattai bi tiro eman go zezkuela kalea juten bazan. Itxia goitik behera errejistratu zien, ez hori bakarrik, itxiak egur oso ona zian eta hauek egurra jotzen zien, Prieto barruan zeolakuan, handikan egon zeikela subterranea eta... Gure ama oso gaxki hartu zien, hark ematen ziola jaten Prietoi, eta horrelakuak esaten.

Zenbat denbora egon zen zu en aitta Plasentzian ezkutututa?

A: Urriak. Sapatuan trenez etortzen huan ixkutuan. **K:** Arruan jetxi eta oinez etortzen huan etxea. Bi urtian-eo. Eta gure aittatta preso euki zuenian jaxa huan eta horreatik jun huan hura segakin eta bi mutilakin haren bila. Geo, Karmelok oso gaxki hartu zian, hark herrera falta zian eta abixatu ziu en gure aittai honea etortze ko berena lanea, Joxe Miel Kaxkazurikin eiten zian lana, eta hau erretiratu



zianian Karmelok esan men ziuari: Aizu Olazar, pixtu zazu beste xua. Nik beste sua piztu, zertako? -Bi xutan lana eiteko. -Aizu, nik bi esku bakarrik dazkat, ez pazabe konforme, lehen ere jun ein nitxan eta berriro jungo nax, eta mantala kentzen hasi huan. -Ez, ez! Xegi holaxe, xegi bertan. Han lanian hasi huan, baina inguruan zezkan karlista-rekete txoro hauek bere ingurura jun eta mariatu eiten men zien.

Bonbilotik bidaliak izan zinetela ere esan duzue, ba.

K: Bai. Conde de Reus izena zun bat etorri huan Zumaira. Eta honei Bonbilo gustatzen zikuan. Itxia jardinak berretzat izango zala esan zian. Aittattai ez ziuari bizitzen ere lagatzen. Margaritak etortzen hittuan, loriak ebaki, erramilltea ein eta aittattai diarra eiten ziuari: Joxe Manuel! Hau dana guria da! Bai ba, gure aittatta okoilotik baatza juten huan-da. Ikusten bazuten: ¿A donde va usted? -A la baatza. -¿Que dice? -Que va al huerto. Eta gure ama **K:** Etxazu erden, bestela fusilatu eingo zaitue-ta. Gu etxetik kanpoa eta Atxurren andriak, Sabinak, esan ziuari: Nik pixu huts bat dakat eta etorri honea. Erropak hartu eta haixena.

Zenbat denbora egon zen Reus hori Bonbilon?

K: Bi urtian. Atxurra aurrea junda ziuari

eta bitartian gasolinaren surtiduria eta dana kendu zizkuen. **A:** Surtidoria bete-betia zian eta Zumaiko jende hau kotxiakin etorri, di-da, di-da, gasolinaz bete eta martxa eiten zien. Depositua hustu arte. **K:** Eta oilo tokixa? **A:** Granja zikan, baserritar bat etorri huan, txarri galanta hura ere, eta reketiak esan ziuari: Zuk hil behar itxozu oilo hauek danak. **K:** Hari bate inportik ez. Oiluak trangearan jarri, lepua moztu, buruak Atxurren andriari eman eta oiluak pilatzen zitian. Danak Zumaiko reketientzat. **A:** Guk esaten gitxuan: Honen buelta etorriko da e! Kontuz ibili! **K:** Konde Reus-ek aldein zunian, berriro etxe haundira jun gitxuan. Aldekoen papel hark asko balixo zian eta alabak errespetatu ein zien aittaren nahixa eta urtero gure ama Bilbora jute huan erretero papel bila. Urtian 50 pezeta. Ni ere, neska koskor muskirosa bat, juten nitxuan, Bonbiloko berdu-ra karro batian hartu eta Atxuritik kalle Buenos Aires-eraino. Gure ama beti etxetik kanpoa ziuari, batian Irungo maristai laguntza eske, bestian Donostira, bestian Bilbora, hura beti guri eta eozenei laguntzeko listo.

Eta etxean nor zen sukaldari?

K: Gure aittatta etxeko andre. Ama batea eta bestea eta aittatta gure ama izan huan. Eta amai beti Inakik laguntzen ziuari. Hura huan etxeko zaharrena eta

amakin batea eta bestea... Hark ere asko sufritu zian.

Etxean jatekoa izango zenuten, ezta?

K: Gose garaixan arta-iriñakin taluak eiten zitian gure amak. Alberto Lasaoa juten huan bizikeletakin artua igotzea eta anaixa etorri bitartian gu itxian erreztzen. **A:** Gure aittak Lasako baserritar bat ezaguna zian. Egun batian hartu iu trena eta jun gaittuk. Bajatu gaittuk balneaxuan, Lasaoa tapa-tapa oinez jun eta baserrixan: Koino Inaxio! Bizi al hax! Hau eta hau esan ziuari gure aittak eta har **K:** Hamen ixilikan etorri behar dek, e? Eta gabez etorri ezkeo hobe. Zeinek ekarri behar du artua? -Hau etorriko dek bizikeletan. Horrela neu juten nitxuan. Bizikeletan parrilla bat jarrita nian. Han zulo bat bezala nitxikan jarrita, han zaku osua sartu eta abante.

Gauz ibiltzen al hintzen beti?

A: Bai. Guardia zibilak ibiltzen hittuan da bidiak kontrolatzen. Kriston zartaa

eman zien batian. Handik honea natorre-la Balneaxoko hortan geatzeko esan zien eta nik andadio! ospa! Bizikeletakin kiñaa ein nian eta jo zikak kulatakin buruan: Ospera! Eman ziak! Baina, aurrea ta aurrea ta aurrea ein eta etxeaino. Itxian kura ein zien, baina... oaindikan ere hamentxe zikat trongoilua. Beste batian... Kantea gainian guardia zibilak! Bizikeleta hartu eta bajatu nauk trenbidea eta hantxe eon nitxuan haixek pasatu zai. Ni zai eta zai eta haixek kantari eta berriketan, halako batian pasa txuk, bizikeleta eta guzti errixua pasatu nian, eta etxea. Beste batian banatxitorrek etxea, guardia zibilak Iraetan, Arruan, Azkueneko hortan eote hitxuan eta Oikitik barruna etortzen nitxuan. Behin banatxitorrek Beduatik goraka, ikusi ixkiat eta aibadio!, esan nian. Beaixek aitu eta hor Beduan baziuan zemento fabrika bat (Uriarte y Zubimendi) bide bat behetik gora zeukana, han goixan harrixa erretzen zien, geo hautza eiteko, ba, nik Beduako aldapan buelta eman eta andadio! gora jo nian. Goixan ixkutatu nitxuan. Guardia zibilak esaten zien: A ese cabrito le tenemos que coger! Haixek pentsatu zien nik buelta eman eta Oiki alde jo nula, baina ni ixkutatuta. Ese tiene que caer aquí, tiene que caer. Ikusi nunian pasatu ziala, jata, andadio! bizikeletakin behetik gora txistu eerra atea nian. Oindikan ere trongoilo galanta diat hamen.

Garai hartan trongoiloak ugari, baita eskoletan ere, ezta?

A: Bai. Herriko eskolan Kilkirritoi Txarlot maixuak bizitza inposibla eiten ziuan. Haixen aitta aurrea junda ziuan, itxian diruik ez, eta Kruxito olarrota jutun huan. Batian egun bat falta, bestian bi... eta Kilkirritok beti egurra jasotzen. Gu hiru mutil, Iparreko Praxku, Joxe Pordillos eta nik frente ein gitxuan maixuai. Kilkirritok esaten zian: Joe! Nik olarru batzuk ekarri behar txiat, ez zeki u aitta non dabilen, aurrea jun huan, barku batian zebilek... Hi jun hai lasai, eta hire kontra hasten bada, akabatu eingo diau txarri hori, esan ziuan batian Iparrek. Hala, zer dek et**A:** ¿En donde está ese?, goizian eskola jun eta estrenengo lana Kruxito non zan

galdera eiten zian maixuak. Azaldu dek Kruxito handik bi egunea eta maixua **K:** ¡Qué! ¡Qué pasa para no venir a la escuela! Yo comida para casa... Erderaz gutxi zekian, ba. ¡Comida! ¡Ni comida ni nada! Regla hartu zian beti bezela jotzeko eta har**K:** ¡Que yo saltar por la ventana! Ta leixo gainea ixo huan. ¡Salta si eres tan valiente! ¡Salta! Eta gu hiruro**K:** Ez zak salto ein, eon hai hor lasai. Gixajo hark jatekua ekartzen familiako eta... Bai ba, orduan jakin ginien maixu hau bere herrixan republikanua zala eta honea etorri eta, zea, falangista! Insigniak eta dana jantzita ibiltzen huan. Reglakin di-da hasi huan eta gu**K:** –Oiga! Que sabemos

“Guardia zibilak kriston zartaa eman zien batian.

Balneaxoko hortan gelditzeko esan zien eta nik, andadios!, ospa!, bizikeletakin kiñaa ein nian eta jo zikak kulatakin buruan: ospera!, eman ziak! Baina aurrea, aurrea, eta aurrea ein eta etxeaino. Itxian kura ein zien. Baina... oaindikan ere hamentxe zikat trongoilua.”

muchas cosas de uste, e! –¿Saber qué? –Que tú eres un chaquetero!, Pordillosek. Hirurok batea jun gitxuan, haserre. Te vamos a tirar por la ventana! Txaketero! Eres un txaketero!, eta eskutik regla kendu nitxuan. –Y ahora que! Vamos a cerrar eso y vamos a sacar cuentas aquí! Gizona bildurtu huan. –Como?, como?



–Tú en tu pueblo eras republicano y aquí eres falangista! Chaquetero! Chaquetero!, Joxe Pordillosek. Ekarri zak regla!, nei. Ez xok jo, ez xok jo!, bestela akaatu eingo ziatek-eta! Handik aurrea, leun-leun ibili huan. Hala ere Kilkirritto bildurrak. Lasai Kruxito! Hi hemendik aurrea gurekin sartuko haix eskola. Hala, sartu eta erten gurekin eiten zian. **K:** Majina bat aldiz ekartzen huan hik Kruxito etxea. Azaa-ta zebela-ta. Eta gure ama**K:** Ekarri zak mutil hura. Zeonetik ematen gitxuan. Baita botelletan esnia ere.

Frankistak herriak hartzen zituztenian, desfileetan eskolako umiak ere ibiltzen al zineten?

A: Tomak izaten zianian, mutil danak hartu eta vamos a la manifestación, esaten zian maixuak. Egun batian: –No vamos a la manifestación!, Pordillosek. –Bastante manifestación tengo yo en casa con las vacas-y, nik. –Nos quedamos aquí!, Iparrek. Pixkanaka, geo gehixo gurekin, geo gehixo, eta azkenian klase erdixa baino gehixo gurekin geatzen huan. **K:** Eta Zelaianeko etxe horretan bandera espainola altxa eta jexten zutenian? Han pasaan bahintxan gelditu ein behar. Eskua gota altxata korneta geatu arte. Geldi-geldi. Eta deskuiduan moitzen bahintxan, han hittuan hire gainian Zumaike reketete txarri hauek! Horreatik gu Zumaira ez gitxuan jun ere eiten. Nahitahiezko mandatu bat edo beste, bestela, Bonbilon. Jaixetan e bai. Albertok bizikeleta hartu eta lagunakin kanpoa. **A:** Dana



Embera kalea
20750 ZUMAIA (Zapuzka)
tel. 943 961 973



Loradenda
tel. 943 861 180
Lorazaintza
tel. 943 860 778
655 783 343
TXINGURRI
Koop. Elk.
Nekazaritza Injeneru Teknikoak

Urola 2000, s.l.

Aroztegia

- *Erakuntzen alabera eta dekorazioak
- *Baserrien zeharberitzeak
- *Erabakialdi konponketak
- *Alo, zokalo, barne eta pertsonak
- *Armarri erakargarriak aurkezten
- *Aroztegi instalazioak

Trenbide pasealekua, 1 tel. 943 143 505 - 619 434 323



Xanti Osa
Arantza Arzue
Amiako plaza, 13
tel. 943 860 914
657 794 153
Deuda: tel./faxa 943 862 385



ZUGAZTI A U T O A K

Peugeot
Agentzia ofiziala

Santiago auzoa, 2 tel./faxa 943 860 201



plater konbinatuak
ogitartekoak
olasko erreak

Urtzi Plaza 3 • 943 86 25 81 • ZUMAIA



• Gidabaimen guztiak ateratzeko baimendua
• Praktika eta azterketak Azpeitian
• **GURE HELBURUA:**
Gidari trebe eta profesionalak egitea

Basadi, 12 - behea • tel. 943 86 10 18 • ZUMAIA



Maitxo Uranga
Oinetako eta erropen konponketak
Produktu eta material ekologikoa

Zurbilo kalea 8 • 20750 Zumai • 943 861 252 • 652 727 740



Zumaia Hotela
Jantokien
Kafetegia

Alai auzategia, 20750 Zumai tel. 943 143 441 faxa 943 865 161



Zerbitzu Ofiziala

ZUMAI A MOTOR

Santiago auzoa, 22
tel. 943 143 143 faxa: 943 865 161




Txinin Agne kalea, 6 tel./faxa: 943 143 057



Dieta bat behar duzu?

- ✓ Obesitate / Galtzea
- ✓ Argitasuna
- ✓ Hipertentsio / Kardiopatia
- ✓ Trigliceridoak / Kolesterolo
- ✓ Anemiak
- ✓ Haur nutrizioa

Elixabete Arano Manterola
Giza elikadura eta dietetan diplomadua
Obesitatean, haur nutrizio eta kardi nutrizioan espezialistak

Juan Belmonte, 10, behea tel.: 943 117 933

han gitxikan-da. Pelotan ere etxe atzeko paetian eiten ginien.

Eskolan zer ikasi huan?

A: Nik ezer ez. Letzen eta eskribitzen, sumar, restar mutiplicar, dibidir eta... Dibujatzia gustatzen zikan nei asko. Ondo moldatzen nitxuan. Oaindikan itxian bazikat orduan dibujatutakuak.

Nork irakatsi zian dibujatzen?

A: Inork ez. Neure kontura ibiltzen nitxuan. **K:** Bai, baina hiri maixu batek kuadrikulatzen erakutzi zian. Baserritar bat perixan saltzen postal txikixa hartu, geo papel haundi bat eta postala kuadrikulatu eta kuadrui segika kopiatu. Txikitik haundira kopiatzen artista huan. **A:** Bai. Pintatzen ere jarduten nian. Inork ez zian erakutzi. **K:** Pintatzen ere oso artista huan hau.

Zenbat urterekin hasi hintzen lanean?

A: Ni, gutxikin. Hamaika edo hamabi urtekin. Xaharreneko Patxikukin ibili nitxuan. Hark gure aldamenian, Atxurreneko garajian, automobila eukitzen zian eta nik garbitzen, konponketak eiten-eta ikasi nian.

Zaletasuna ala lana?

A: Bixak. Baina hark lana emate zian.

Kulatai junta ein, hau ein zak, hura ein zak, eta poliki-poliki ikasi nian. Eerki.

K: Gure nausixak ere kotxia ekartzen zunian, beheiak eta goixak-eta garbitzeatik mutil hauei zilarra ematen ziuen. Zilarrezko txanpona. Jo eta mutil danak desiatzen lan hura eiteko! Orduan ba al dakik zenbat zan diru hura! **A:** Patxikuk esaten zian: Etorri al zak aittona zaharra? Nola bazekixen hura etorri ezkeo kotxia ekarriko zigula. Hura Santixoko plaira jute huan kotxez. **K:** Iñakik esaten zian Alberto hamabi urteako hasi zala kotxiak konpontzen. Eskolatik etorri, Alberto non zan arrastoik ez eta aldamenian Atxurreneko tailerrian Xaharreneko Patxikuna junda bilatzen zien. Traje-buzo zahar bat jantzita, eta ez ziuan ezer patzen. **A:** Ni gustoa lanian ordia! Eta ofizixua ikasten ai nitxuan. Eskolatik saltaka zuzenian etxea, merienda hartu ta Patxikuna.

Patxikuri laguntzeaz gain, lanean non hasi hintzen?

A: Otto Holkenian. Hamalau urtekin. **K:** Hau hamalau urtekin eta Iñaki Karmelonian hamahirukin.

Zenbat ordu lan egiten zenuten?

A: Mekanikan aprendiz 8 ordu, fresadorak eiten ginien, haixen piezak eiten. Torneruak, berriz, tornuan, eta horrela.

Lanetik irten ondoren zer egiten huan?

A: Zea! Etxea zuzenian! Itxian lana besteik ez huan-da. Joe! Han eoten huan zai aittatta. Hau ein behar det, geo beste hura, arbola horrei agarrak moztu...

K: Geo, gure aitta Plasentzitik etorri zanian, Karmelok lanian hartu zian. Herrero ona zalako. Nola dago monja xaharretan sarreran reja bat? Ba, reja hura gure aittak eindakua dek, Kaxkazurik (Mariano sakristauen aitta) eta Añezko Pioik lagunduta. Aldekoak terreno pusketak batetik lurra ateatzeko esan ziuan, lur harekin jardinak pixkat mejoratzeko eta lurra atea zun terreno hartan tailer txiki bat egin zian. Aitta Karmelonetik etortzen zanian, bueltako baserritar danak aitzurrak, aixkorak eta herramientak txorrozteko ekartzen zixkien. Geo tailer hortan perra-tokixa ere jarri zian. Eta ganauak ekartzen zixkien perratzeko eta hari eskerrak pixkat hobeto bizi gitxuan. **A:** Behia altzatzeko bi edo lagun behar hittuk, e! Biek kla, kla, bi aldetatik lotu, bestiak aurretik, goraka altxa eta gure aitta **K:** Bale ondo zio!

Jarraituko du.



OTSAILA-MARTXOA

Deialdiak

- SANTELMOAK: Bileria irekia: otsailaren 13an, ostirala, 19:00etan udaletxean.
- MENDI ASTEA 2008: Martxoan, Forondan, Mendiko ikus-entzunezkoak (ikus egitaraua)
- OUT LET AZOKA: Herriko dendarien deialdia, Otsailaren 7 eta 8an.

Erakusketak:

Otsailaren 7tik 15era, Alondegia aretoan, BEGOÑA EGUIGURENen erakusketa.

Irteerak:

Turismo bulegoak antolatuta (943-143396)

- Txangoa: txangoa martxoaren 14an izango da. Urdaibai-Bermeo



- Oharra: urte guztiko txangoetan izena eman nahi dutenentzat izena emateko datak: otsailaren 15etik 28ra. Herrian irteerak:
- Martxoak 1, 15, 20 eta 29: Txalupa Zumaia-Deba-Zumaia (11:30-12:45)

- Martxoak 7, 14 eta 21: Geologikoa + txalupa (10:00-13:30)
- Martxoak 8: Trekking Deba-Zumaia (9:00-16:00)
- Martxoak 20: Zuloaga-kulturala (16:30-19:15)
- Martxoak 28: Rasa (10:00-14:00)

Ikastaroak

Ikasturtean zehar matrikula zabalik: Informazioa 943-861056 foronda@zumaia.net

- PINTURA TAILERRA: Astelehenetik ostegunera.
- YOGA: astearte eta ostegunetan 18:30ean
- HAUR ANTZERKIA: Ostegunetan 17:30ean.



- KZ Gunea: ikastaro eta mintegiak: Firma elektronikoa, Etxearen bila, IT txartela... 943-862866
- KUTXA GELAK (902 540040): Tai chi chuan I, Tai chi chuan II, Golfa ezagutzen, Bainika lanak eta sukaldaritzak onttoekin.

AGENDA Otsaila

- Osteguna, 12
22:15ean zine forum: "El tren de las 3:10"
- Ostirala, 13
22:00etan Aita Mari aretoan, antzerkia: Le Petit Theatre de Pain taldearen "Juglarea, Puta eta eroa"



- Otsailaren 20tik 23ra
INAUTERIAK – Ikusi egitaraua Astelehena, 23
15:00etan eta 17:00etan Pirritx eta Porrotx pailazoan saioa: "Piratak"
- Osteguna, 26
22:15ean zine forum: "Caos calmo"
- Igandea, 28
Zumaia XXV. Herri Lasterketa, 16:00etatik-16:45era haurrak. 17:00etan helduak.

Martxoa

- Ostirala, 6
22:00etan Emakumearen eguna dela eta antzerkia "La edad de la ciruela"
- Larunbata, 7
19:00etan Emakume eguna dela eta kontzertua Ondarroako Unanue

- Kamara Korala- Komentuan Osteguna, 12
22:15ean zine forum: "Hace mucho que te quiero"
- Ostirala, 13
22:00etan Aita Mari aretoan, Kantaldia : Maddi Oihenart



- Igandea, 14
13:00ean Komentuan, Emakumearen eguna dela eta, Kontzertua Larunbata, 14 "ZUHAITZ EGUNA" (Ikusi egitaraua)
- Osteguna, 26
22:15ean zine forum: "La boda de Rachel"
- Igandea, 29
12:00etan haur antzerkia La Baldufa "Baserriko saltsa"

Foronda kultur etxea. 943-861056

Agenda zure e-postan jaso nahi baduzu, eskatu helbide honetara. "agenda etxera" foronda@zumaia.net

BALEIKE

173. ZENBAKIA. EURO BAT 2009ko URTARRILA

www.baleike.com

EURO BATENTRUKI!

SALMENTA PUNTUAK:

- ✓ Foto Gar
- ✓ Otaño liburu-denda
- ✓ Arkupe
- ✓ Aizpurua liburu-denda
- ✓ Errota
- ✓ Brakys



Ingelesa, Gorpuz Hezkuntza, Musika, Haur Hezkuntza eta Heziketa Bereziko irakaslego espezializatua.

Internet gela guztietan

Jangela zerbitzua

Ingelesa 3 urtetik aurrera

Teknologi berriak: Pelutxe proiektua. Bloga:
<http://laukostaldekotxikiak.blogspot.com>

Talde Txikiak

Psikomotrizitate gela

2 urtetik
12 urtera

Arroako herri eskola

OSO LASAI ETA EUSKARAZ BLAI
Matrikula zaitez!
otsailaren 2tik 13ra



Tel./Fax-a 943 14 70 44
E-mail: 012038aa@hezkuntza.net

h **5** **urte**

zeu zara giltza, eteko atea egunero irekitzen diguzulako. Bost urte hauetan HITZA hemikoa bezain beharrezkoa bihurtu da zuri eskler. Egunero irakurtzen gaituz eta egunero eskertzen ditugu. Komunikazio proiektu honetan albeste iturri


amaigabea ere bazaitugu eta hori ezinbestekoa da gure informazioaren errotak marxiari jarri dezan. Bost zentzuak pituta ditugu linean jarraitzeko. Eman bostekoa, hartu hitza.

zeu zara
giltza,
hartu hitza

Hitza etxean jaso nahi baduzu, deitu

HITZAren bulegora 943 89 00 17 edo bezero arretara 902 82 02 01

UROLA KOSTAKO **hitza**



ZUMAIAKO HERRI ESKOLA

**ZUMAIAKO
INSTITUTUA**



**KALITATEA
HEZKUNTZAN**

MATRIKULA IREKIA

Haur hezkuntza, lehen hezkuntza eta bigarren hezkuntzako matrikula epea zabalik
otsailaren 2tik 13ra

Heziketa euskalduna, anitza eta kalitatezkoa eskaintzen duen ikastetxe publikoa.

Urte batetik hasi eta hogeii urte bitarteko heziketa

- Ingeles goiztiarra (4 urtetik aurrera).
- Teknologia berriak: informatika, irratia.
- Giza baloreak eta elkarbizitza lantzen ditugu.
- Irakasle eta gurasoen arteko hartu-eman sendoa
- Irakasleen formakuntza etengabea.
- Zerbitzuak: jangela, garraioa eta zaintza zerbitzuak.

Anima zaitez!!!

**Haur Hezkuntza
Lehen Hezkuntza**

Helbideak:

Aita Mari, 44,

tel. 943 861 037; faxa: 943 862 501

posta elektronikoa: 012972aa@hezkuntza.net

Sagarbidea, 1

tel. 943 861 693



**Derrigorrezko
Bigarren Hezkuntza**

Batxilergoak

- Giza eta Gizarte zientziak
- Zientzia eta Teknologia

Heziketa Zikloak

- Administrarritza eta Finantzak (Goi Mailakoa)

ZUMAIAKO INSTITUTUA

Aita Mari auzoa, 45

tel. 943 860 809 / 943 862 320

faxa: 943 860 810

posta elektronikoa: zuminst@euskalnet.net

web orria: www.zumaiiahe.com